EUSKAL GIZARTE HAUTSIA (II)

POLITIKA ETA POLITIKAK

Herri-mugimendu hau zenbait politikarekin batera dator, politika hitza hemen nahiko arrunki hartzen bada. Beste zenbait politikabideri, aldiz, zuzenki kontraesaten dio.

Baina zehazkiago hartzen bada, politika diferenteak dira, herri-mugimendu honek zuzen-zuzen eta osorik kontraesaten ez duen politika baitan, mugimendu hau politika haiekin zenbait gauzatan bat *datorrelarik, baina haiekin berdintzera ailegatu gabe.*

Hauen artean, Alderdi abertzale klasikoak daude, lehen-lehenik. Ez dago dudarik, herri-mugimendu honen barnera haien ideia eta asmo asko sartu dela. Eta, uste dudanez, herri-mugimendu honen presupostu historikorik importanteena ere haietxek izan dira. Halabaina, herri-gumimendu hau gauza askotan apartatu da alderdi haietatik (edo abertzaletasun hartatik), eta ezin esango litzake, haien umea besterik ez denik.

Gero, Alderdi sozialista klasikoak daude (sozialistak edo komunistak). Gaurko herri-mugimenduek hauei ere asko zor diete, baina funtsean hauetatik ere aparte dabil. Bere sozialistak ideia ere beste iturri batzuetatik edan ditu gehienbat: sozialismoaren tradizioan zeuden, baina gehienetan herbestekoak ziren, gure tradizio eta problematika politikoetatik urruti bizi ziren. Autore eta pentsamentu korrontetatik. Halare (edo horrexegatik) bildur izan daiteke, mugimendu honetan sozialismoa askotan "sozialismo akademiko" hutsetatik ez dela pasatzen. Jeneralean, mugimendu guztiak "superideologizazio" edo inflazio ideologiko izugarria sofritzen du.

Hain zuzen ere gure historian elkarren kontrario izan ditugun bi posizio hauk bateratzea da herri-mogimendu honen xedea. Horixe da bere ezaugarririk importanteena ere. Beraz, abertzaletasun berri batez mintzo gintezke, ezker berri batez bezalaxe. Baina sintesi hori lortzea ez bait da batere gauza erraza, amaika neke kostatzen ari zaio mugimendu honi, bere kontzientzia garbitzea ta osatzea: gure eztabaidetan sarri entzuten da, norbait abertzaletasun zaharrera edo ezker zaharrera itzuli dela, bere ideia eta jokabideez. Istilu guztietan akusaziorik korrienteenak horietxek izaten dira (propio hortarako dauden adjetibo ederrekin: arrazista, txobinista, burges-tipi, edo-ta espainolista, metafisiko, etc.). Beraz, egunoroko ogia da, norbait eksuindarra dela, edo ezkertiarra dela, entzutea. Gainera, ez pentsa, Alderdi klasiko sozialista (komunista) nahiz abertzale haiek ere herri-mugimendu hau berentzat gustora irabazi nahi ez luketenik, gero! Ta ezin badute, kondena eta deskomunioz beteko zaituzte.

Azkeniz, herri-mugimendu honekin batera sortutako talde politiko berriak edo berriro formatuak daude. Jeneralean herri-mugimendu honekin harreman estuagoak dituzte: mugimendu honen sortzaile haina mugimendu, honek sortutakoak dira. Baina hauk ere ez dago herri-mugimendu osoaz berdintzerik: honen parte dira.

Orain ez dago taldeon eta beren diferentzien deskribizioan hasterik.

POLITIKABIDE BERRIEN ARTEKO BURRUKAK

Azkeneko taldeon artean (eta hauen eta goikoen artean berdin) diferentzia eta burruka gogorrak dira. Politikan beti bezala, diferentzia eta burruka horien arrazoiak, dudarik gabe, asko eta diferenteak dira: tradizio ezberdinetatik etortzeak, elkar ezezagutzeak, eginkizunetako diferentziek, diferentzia sikologikoek, edo ikuskera estrategiko, taktiko nahiz teoriko diferenteek, arrazoi pertsonal hutsek, edo printzipiozko diferentxiek, eta nik al dakit zer gehiagok sor lezakeen politikan konpetentzia eta burruka.



Baina taldeei berei begiratzen badiegu, zera ikusten dugu: diferentzia guztiei beti sustrai teorikoren bat bilatzen zaiela. Makina bat kasuistika xelebre eta harrigarri egiten da, hortarako. Baina, tamalez, itxuraz hain larri diren teoriko diferentzia horiek ikustea ez da beti erraza; eta, jeneralki, ilusio hutsa dirudi, politikabideetako diferentzia guztiei arrazoi teorikoren bat aurkitu nahi izateak: gure Alderdiak egiazki politikoak badira behintzat, eta ez filosofi-ezkolak, ez da posible hain xeheki matizatuak izatea. Bestela pertsona bakoitzarentzat Alderdi bat beharko genuke! Horixe gertatzen ari ez ote den, itaun liteke; baina hori gertatu beharrik ba al dagoen ere bai, noski.

Superideologizazioarekin eskuz-esku datorkigu hori, eta horretxek bakarrik aski dirudi politika zeharo desprestijiatzeko: eskolastika hutsa bihurtzen bait dugu politika.

SEKTARISMOA

Taldeon "sektarismoa" nahi diren arrazoiez zuzenetsiko edo esplikatuko da, gero, artikulu honen hasierako kritikoak egiten zuen moduan. Eta ez ditut arrazoi horiek inola ukatuko: badakigu, gertatzen den edozer gauzak ba duela kausaren bat. Arrazoiren bat, hortakoz. Baina horrek ezin engaina gaitzake, eta ez dugu gauzei beren izenez deitzeko lotsaz ibiltzerik. Sektarismoa, oraingoz ezinbestezkoa gerta badadi ere, sektarismo da, eta hori garbi jakitea behar-beharrezkoa da, inoiz gaindituko bada. Batasunik ezin lortuko dugu, sektarismo horrek dirauen artean. Eta sektarismoak gutienez bere kausa sozialek haina iraungo du. Baina gaitz horren kontzientziarik ez badugu, kausek baino askoz gehiago ere bai.

Eta ez dago zalantzarik, sektarismoan erorita gaudela:

«El rasgo más esencial de este producto social denominado 'secta' es la permanente vigilancia para la delimitación extraordinariamente rigurosa de sus propias fronteras, el constante control orientado a garantizar caracteres distintivos precisos e inequívoco secta y el resto del mundo. Estos criterios son de cos que permitan trazar una frontera neta entre la distinto género y se refieren a la ideología, a la organización, al rito o a los usos; y cuanto más detallados, numerosos y múltiples se vuelven, tanto más claramente demuestran la progresiva petrificación de la secta y tanto más visible resulta que el organismo social deja de seguir viviendo por la vía de la asimilación y del intercambio de materias con el mundo exterior y existe, por así decirlo, gracias a una 'autorreproducción' extraña y desconocida en la naturaleza, alimentándose de su propia sustancia y concentrando su actividad totalmente sobre sí, de forma que también su actividad externa viene determinada por las necesidades de su autoconservación.»

«La secta debe prestar mucha atención a que en ningún instante se borre la frontera entre ella y el mundo que la rodea» (Kolakowski).

Batzutan, sektarismo hau obligazio metodiko bat bilakatu zaigula, esango litzake. Edozein ekintza egin dela, eta ekintzaleek eskainiko diguten analisiak, ia beti eskema honi segitzen dio: gure ekintza hau eta hori zen; hortarako, halako eta holakoak baztertu behar izan ditugu eskuin aldetik, eta bestelako besteok ezker aldetik. Eta gehienetan negargarri ez balitz, biziro farregarri den azterketa izaten da.

KULTURA ETA POLITIKA

Ez dut, horregatik, gure taldeen arteko burruken zindotasunik eta inportantziarik gutietsi nahi. Gure egoeran kausa tipieko ndorio haundiak ekar ditzaketela, diferentzia kaskarrek galera gaitzak sor ditzaketela, behinb aino gehiagotan ikusi dugu eta erraz konprenitzen da. Baina honez gero, eta geroz-eta gehiago, asmo batek gidatu behar gintuzke: nolabait elkartzerik dagoen guztiekin elkan hartzea,g auza guztietan berdin pentsatzen ez badugu ere. Hortarako ez dago diferentziak eta eztabaidak Iurperatu beharrik.

Beraz, gure politikoen eginkizunik larrienetako bat, beren arteko batasuna nola lor dezaketan, serioski aztertzea eta hortan ahalegitea dela, iruditzen zait. Eta hurbilenik dagoenaz elkartuz bakarrik, has gaitezke batasuna egiten. Baina, jakina, hortarako guregandik hurbilenik zein dagoen jakin behar... Ta hori ez dakien politikoa, ez dabil oso zuzen. (Hurbiltasun hori ez da, eta ez du izaterik, printzipiozkoa eta absolutoa: leku honetako burrukaren une honetako hurbiltasuna besterik ez da; burrukaren beste fase batetan beste batzuk egon ditezke hurbilago).

Baina ez eskubiderik eta ez gogorik dut, politikoei politika nola egin behar duten, predikatzen hasteko. Hortarako ez dute nere beharrik ere. Zera esan nahi dut bakarrik: xede jeneraletan denok bat etorri arren, politikan xede horien zertzeladak xehatzeko eta finkatzeko orduan hainbeste jirabira eta burruka dabilen artean, politikako izkimizki eta zankadileo guziek, nahiko alferrik, baina nahitaez kondizionatuko dutela gure kultur-lan guzia ere. Edozein eritzi kultural politiko tesi bat bezalaxe hartuko dugu. Ta edozein ekintza kulturalen atzean zein politika dagoen galdetu beharko dugu beti. Kultura eta politika, bateratuta ezezik, berdinduta ditugula, ikusiko da.

Gure kritiketan hain errezelotsu eta hain erruki gabeak bagara, politikan ari garelako da. Eta politikagatik, diferentzia tipi asko artifizialki puzten eta haunditzen dugu: kultur-arloan ez baiña politikan duten inportantzeiagatik.

Hori dela eta, kultur kontuan ere bazterrak eskuinez eta ezkerrez beteta ditugu: gehienetan zentzu askorik gabeko eskuinez eta ezkerrez.

Joxe AZURMENDI

FAGOR
edaria epela dagola? FAGOR'ek oztuko du bereala

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA
UGARTE
Urbieta, 68 DONOSTIA

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

AGATE OPARIAK
GAI TA IRUDI POLITENAK
Victor Pradera, 2
(Esquina Zubieta) DONOSTI